

Senpereko etxalde bat okupatu dute espekulazioa salatzeko

KAZETA.EUS :: 27/06/2023

Senpereko Olha etxaldea okupatu dute 40 pertsonak ELBk, Lurzaindiak, Senpertarren kolektiboak eta Ostia sareak deiturik, salmenta espekulatiboa salatzeko.

Ekainaren 27an abiatu du ekimena 40 pertsonaz osatutako taldeak: etxe bat okupatu eta lehen gaua bertan pasatzera joateko deialdia egin diete herritarrei. Izan ere, erran dutenez, haien «helburua lortu arte» bertan egonen dira, Arbonako lurren okupazioaren kasuan egin bezala.

Etxaldearen jabeak borrokan ari diren kolektiboei lurra erostea proposatu die, 200.000 euroren truke. Etxebizitza, ordea, jabeak salgai ezarriko luke, 1.100.000 euroan. Lurraren alde eta espekulazioaren kontra lanean ari diren kolektiboek ez dute proposamena onartu, haien arabera «espekulazioa faboretuko bailuke».

50 hektareako eremuan kokaturik dago etxaldea. © Guillaume FAUVEAU

Hilabeteko polemika

Senpereko lurretan da 1.300.000 eurotan salgai den etxaldea eta **polemika piztu du** gaiak. Herriko etxean, Senpereko herriaren ekimenez, ekainaren 2an eta 9an bilkurak egin zituzten eragile nagusiek, 50 hektareako jabetzari buruz eztabaidatu eta aterabideak atzemateko.

Lehen bilkuraren ondotik, Bernard Elhorga auzapezak inguruko eragile guztiek **hilabeteko epea** hartuko zutela aipatu zuen, gogoetatzeko. Oraingoz ez dute aterabiderik atzeman.

Ekainaren 9ko herriko kontseiluan, Hats Berri oposizioko taldeak gaia mahai gainera ekarri zuen, lehenik bere atsekabea erakutsi eta, ondotik, **bide orria** proposatzeko, hau da, gunea Ereku Natural Sentikorra (ENS) bilakatzea.

Denbora tarte honetan hainbat mobilizazio egin dira, Senperen bezala, inguruko herrietan. **Safer erakundeak ere bere kezka** agertu du. Lur horietatik zazpi hektarea laborantzakoak dira eta beste berrogei, berriz, oihana dira. «Saferrak estimaturiko prezioa baino hiru aldiz garestiago» saldu nahi dutela gogorarazi zuen senpertarren kolektiboak maiatzaren 24an.

<https://eh.lahaine.org/senpereko-etxalde-bat-okupatu-dute>